berriak
Triforio -tik

90. Zkia.
2021eko urtarrila

araba álava

“Family Friendly” jardueren aldeko apustua

Euskadiko Familia Turismoaren Klubeko kide nabarmena den Santa Maria Katedrala Fundazioak, egungo osasun-egoerara egokitu ditu haurrentzako jarduera nagusiak, haurrei zuzendutako tailerrak egin egingo direla bermatzeko –eskolako oporraldietan batez ere– eta “Family Friendly” zigilua duten kultura-zerbitzuen eskaintzarekin jarraitzeko.

Horrela, aurtengo Gabonetan, 7 eta 10 urte bitarteko haurrentzako bisita-tailerrak antolatu dira. Bisita horietan, katedral osoa ezagutzeaz gain, jarduera plastiko bat egin zuten: “2021erako agenda bat sortzea eta diseinatzea”. Parte hartu zuten haurrek euren eskuekin egin zuten elaborazio-prozesu osoa, enkoadernaziotik, zigilu bidezko estanpazio-tekniken bitartez azala diseinatu arte.

Haurrentzat ere bisita berezi bat antolatu zen katedralera, “Pilares Doktorea” protagonista izan zuena. Jarduera 5 eta 8 urte bitarteko haurrei egon zen zuzenduta, eta katedral batean aplikatu behar diren zaintzak nolakoak diren jakiteko aukera izan zuten. Jarduera horrek 75 minutu iraungo ditu, eta saioak abenduaren 28an eta 29an eta urtarrilaren 3an eta 4an, 17:30ean, izango dira. Bisitan, adingabeek ezin dute lagunduta egon, baina helduek bisita paralelo baterako izena eman dezakete.

Fundazioak ordezkaritza izan du orain arte Euskadiko Familia Turismoko Mahaian egin diren bi bileretan. Bilera horietan, forma eman zaio indarrean dagoen denboraldirako Familia Turismoko Produktuaren Klubaren Ekintza Planari. Azken bileran sortutako proposamen nagusiek tresna digitalak hobetzearen eta “gamifikazioa” indartzearen alde egiten zuten. Zentzu horretan, duela denbora gutxi martxan jarri eta Katedralaren ezaugarri nagusietakoa bihurtu den Errealitate Birtualaren Esperientzia azpimarratu behar da.









Katedrala, **Biltzarrak eta Ekitaldiak** antolatzeko erreklamoa

Gasteizko Santa Maria Katedrala izan zen abenduaren 22an Kongresuak eta Ekitaldiak antolatzen dituzten enpresen Euskal Elkarteak (OPCE) egin zuen “Training Day” delakoaren mezuetako bat, Europa Jauregitik egin zen, eta streaming bidez zabaldu zen interesa zuen jende guztiarentzat.

Jon Lasa Fundazioko gerenteak, “Ekitaldiak eta Hiriak: funtsezko bazkideak” izeneko mahai-inguruan hartu zuen parte, Artiumeko, Atariako, GasteizOneko eta Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbideko ordezkariekin batera.


Arabako hiriburuan ekitaldi sozialak sustatzeko urtero antolatzen den ekitaldiaren hirugarren edizioa da. Antolatzaileek adierazi zuten bezala, katedrala “harribitxia” da, eta balioa ematen dio Gasteizko kultura- eta ekipamendu-eskaintzari, “Irekita obrengatik” programaren eta Aterpetxearen bitartez, besteak beste.

Santa Anako portadaren eraikuntza, urratsez urrats

Azken hilabeteotan, Santa Anako portadaren zaharberritzearen alderdi tekniko batzuk azaldu dizkizuegu. Zenbaki honetatik aurrera, eta datozen hilabeteetan, XIV. mendean zehar eraikuntza prozesua nola gauzatu zen kontatuko dizuegu. Horretarako, komentatutako zenbait ilustrazio erabiliko ditugu, eta gaur lehenengoa erakutsiko dizuegu; Ajarteko (Trebiñu) harrobietara joango gara, harria atera zen lekura, hain zuzen ere.


I. atala Lehengaia

Santa Anako elizpea eraikitzeko egin behar izan zen lehen lanetako bat estruktura altxatzeko behar zen harri guztia biltzea izan zen. Lantzeko erraza zen harria behar zen eskulturak egin ahal izateko, baina, era berean, nahikoa indartsua izan behar zuen, elizpeak denboran iraun zezan.



Nola ustiatzen zen harrobia

Gaur egun, harrobiak sakonak izan ohi dira batez ere, baina antzinaroan sakonak baino zabalagoak ziren. Ez zegoen makineriarik, horregatik azaleko harrizko geruzak baino ez ziren ustiatzen. Harrobi bat irekitzeko lehen urratsa eremu harritsua estaltzen zuen lur guztia kentzea zen. Harria geruzaz geruza erauzten hasten zen, logikoa denez, azalekoenetik hasi eta ondorengotik jarraitzeko. Geruza horiek nolabaiteko inklinazioa izaten zuten, eta inklinazio horrek erraztu egiten zuen harria askatzea eta ateratako blokeak gurdietara eramatea.



Harrobitik ateratzen diren moduan dauden harri landugabeko blokeei "karretalak" esaten zaie.

Santa Anako elizpea eraikitzeko erabili zen harria kareharri paleozeno mota bat zen, antzinako harginek "Arabako harri frankoa" edo, besterik gabe, "Harri zuria" deitzen zutena.

Harria, bidaia bakoitzean 460 kg inguruko zama eramateko gai ziren idiek tiratutako gurdietan garraiatzen zen. Gasteizera iristeko 14 km inguruko bidea egin behar zen.

Gehiago jakin nahi baduzu: **Martínez-Torres, L.M., 2010, La ruta de la piedra, Bilbao**
Ilustrazioak eta testuak: **Ismael García-Gómez (GPAC, Enklabe KST)**